


JANARI OSASUNTSUEN

JANARI AZKARRA



Aurreko ataletan aipatu dugun bezala, gure lokala Bagatza dago, Barakaldon. Hiru ikastetxe eta liburutegi bat dituen gune batean dago, gure lokala gazteentzat baita. (Lokalaren kokapenaren irudi bat).

Gure bezeroekin harreman estua mantendu nahiko genuke. Instagramen kontu bat sortu dugu beraientzat, gure lokalerako nahi dituzten galderak edo proposamenak egin ditzaten eta gogotsu erantzungo diegu.

Hau da Asparagus lokalak bere profil propioa du, honako honetan hainbat ekintza egin ditzakegu harreman hurbilago bat izateko gure bezeroekin . Esate baterako , gure profilean astero gure menua igoko dugu haibat hobekuntzekin, gure bezeroak jakinaren gainean egon daitezten. Gure bezeroak gure lokalera sartzen direnean eta gure janaria dastatzen dutenean, gure profilean jarraitzeko aukera emango diegu. Bazkaldu ondoren, egunero igoko ditugu inkestak, gure bezeroek janariari eta gure zerbitzuari buruzko iritziak eman ditzaten. Era berean, pertsonalki erantzungo diegu bazkariari, lokalari, langileei... buruzko kexei.

Gure bezeroekiko harremana mantentzeko eta haien fideltasuna lortzeko, bezeroek erositako txartel (Bona) bat sortu ditugu. Bonu horien bidez, nahi duten guztia jan ahal izango dute gure lokalean aldezturik jarritako janari uharte batetik.

Hasteko, bonu hauek hila batean bakarrik balioko dute, hau da, bezero batek hilero egin nahi badu, hilero bonu bat atera beharko du. Bonuaren prezioa 75 eurokoa da, eta astelehenetik ostegunera bakarrik erabili ahal izango da.

Zer du janari uharte honek? Bada, uharte honek osagai hauek izango ditu: letxuga, atuna, haragia, tomatea, txitxirioak, burrito bat egiteko tortilla... funtsezko osagaiez gain: gatza, piperbeltza, olio eta ozpina. Bazkariak gain, bonu honek gure lokalak eskain dezakeen edozein edari mota ere badu.

Bonu honetaz gain, beste bonu mota bat sortu dugu, eta bi hilean behin zozketatuko dugu gure instagram kontuan: @asparagusbarakaldo, non irabazle bakarra egongo da. Bonu horri esker, irabazleak gure jatetxera 3 aldiz joatean bi hilabete zehar, eta 4en aldian ez dute ezer ordaindu beharko. Gainera, pertsona horrek beste pertsona bat ekarri ahal izango du egun horretan. Bonu honen iraupena bi hilabetekoa denez, bigarren hilabetea amaitutakoan, beste zozketa bat egingo da, eta beste irabazle bat aukeratuko da.

Amaitzeko, bezeroekin harreman estuagoa izateko, baratze bat jarriko dugu lokalaren zati batean, landare usaintsuak, hala nola labanda, menda... eta tomateak, azenarioak eta abar bezalako fruta eta barazkiak landatuko ditugu hemen (Sasoiko landareen arabera). Bezeroak baratze honetatik zerbait eramateko aukera izango dute, horrela, lehen pertsonatik sentituko dute zein naturala eta ekologikoa den gure lokalean lantzen duguna. Bezeroek landare horiek ureztatu eta beste hazi batzuk landatzeko aukera izango dute hurrengo bezeroentzat, alegia.

Bezero guztiek ezingo dute egunero zerbait eramán, dena azkar agortuko litzatekeelako; beraz, aukera honek astean bezero batek izango du, zozketara aukeratua. Zozketa hori egiteko, parte hartu nahi duen bezero bakoitzak bere izen-abizenak eta harremanetarako zenbakia edo posta jarri beharko ditu bazkariko tiketaren atzekaldean. Txartel horiek guztiak kutxa batean sartuko dira, eta ostiralero esku errugabe batek tiketa aterako du, honen atzealdean irabazlearen datuak egongo dira eta pertsona horrekin harremanetan jarriko gara, ahal duenean lokaletik pasateko.

